

EBALUAZIOA

ETHAZI IKASKUNTZA

EREDUAN

Ebaluazioaren diseinua



Ebaluazioaren Diseinua

Ethazi ikaskuntza-ereduak ikasleak ikaskuntzaren erdigunean kokatzen du, zikloko gaitasunen garapenean duten erantzukizuna sustatuz. Ikus dezagun zein den ebaluazioa diseinatzeko prozesua eta zer eragilek esku hartzen duten.

1 – Ebaluazio diseinua ethazi ikaskuntza-ereduaren barruan

Lehenik eta behin, irakasle-taldeak zikloaren profil profesionala zehazten du. Horretarako, enpresa eta gizarte testuingurua aztertu eta ikasleek zikloa bukatutakoan eskuratu beharreko lanbide-profilak izan behar dituen funtsezko gaitasun teknikoak eta zeharkakoak identifikatzen ditu.

Gaitasun horiek identifikatu ondoren, deskribatu egin behar dira, eta horiek eskuratzeko ikaskuntza-etapak edo -mailak ezarri. Ondoren, maila bakoitzeko lorpen-adierazleak ezartzen dira. Horrek guztiak zikloko gaitasun mapa osatzen du, irakasle-taldearentzat zein ikasleentzat erreferentzia izango da.

Puntu honetan gogorazi behar dugu, Oinarrizko Diseinu Currikularraren Ikaskuntza Emaizak mapa honetan daudela.

Mapa honek, irakasle-taldeari erronka bidezko ikaskuntza prozesua diseinatzen laguntzen dio, espero diren ikaskuntzekin bat datorren ziklo-egitura sortuz.

Ondoren, ikasleek elkarlanean ebatzi beharreko erronka zehatzak diseinatzen dira. Horretarako, erronka bakoitzean proposatuko den testuingurua kontuan hartu behar da, lorpen-adierazleetan modu zehatzagoan adierazten diren ikaskuntzak eskuratzeko.

Testuingurua zehaztu ondoren, irakasle-taldeak (erronkei) dagokion dinamizazioa erabakitzen du, ebidentzien bilketa esanguratsua izan dadin. Jarduera honetan ebaluazio-baliabideak sartzea gogoan hartu behar dugu, hala nola, portafolioa, pentsamendu-errutinak, hausnarketa-egunerokoa, etab.

Sistemakikoki, irakasle-taldeak, feedback momentuak zehazten ditu non ikasleek, ikaskuntza konpromiso nahiz hauei lotuta dauden prozesuei buruzko hausnarketa egin behar dute. Horretarako, 360°ko ebaluazioa gauzatzen da.

Feedback-a eta hausnarketa lagungarriak dira ikasleek ikaskuntza-helburuak lortzeko duten erantzukizuna bereganatu dezaten, konpromiso bitartez.

Ebaluazio-prozesu hau amaitzeko, beharrezkoa da irakasle-taldeak azken kalifikazioa irizpide komun araberak definitzea, hala nola modulu bakoitzean gaitasun teknikoei eta zeharkakoei emango zaien pisuaren arabera.

EBALUAZIOA ETHAZI IRAKASKUNTZA EREDUAN

-EBALUAZIOAREN DISEINUA

1 ZER IKASI behar duten argi izatea

Profil profesionala zehaztu

- Testuingurua aztertu
- Gaitasunak identifikatu eta deskribatu

2 IKASKUNTZA IBILBIDEA diseinatu

Ikaskuntzaren ikuspegi globala izatea

- Ikaskuntza mailak eta urratsak definitu
- Lorpen adierazleak definitu

3 IKASLEAK ERDIGUNEAN KOKATU BEHAR DITUGU



3 TRESNAK definitu KONPROMISOAK hartzeko

Ikaskuntzaren erantzukizuna aktibatu

- Hausnarketa-uneak ezarri (feedback eta 360° ebaluazioa)
- Hausnarketarako errutinak eta dinamika diseinatu

5 KALIFIKAZIOA

Moduloren azken nota lortu

- Irizpide amankomunak
- IE-n analisia

4 ERRONKAK diseinatu

Ikaskuntzako testuinguruak zehaztu

- Zikloaren ibilbidea egituratu
- Ebidentziak tresnekin lotu

